

PROBA ESPEZIFIKOA

201' ko PROBA

**ARTEAREN
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2013ko MAIATZA

ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

HISTORIA DEL ARTE

Probaren iraupena: ordubete

Probak bi atal ditu:

1. atala. Bi irudi eskaintzen dira, eta haietako bati iruzkina egin behar zaio. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

2. atala. Bi gai proposatzen dira, eta haietako bat garatu behar da. Atal honek 10etik 5 puntu balio du.

1. atala:

AZTERTU ETA IRUZKINDU BI IRUDI HAUETAKO BAT: (5 puntu).

- Sailkatu obra, eta, horretarako, adierazi estiloa eta gutxi gorabehera noizkoa den.
- Egin obraren azterketa formala eta ikonografikoa.
- Azaldu ezazu, laburki, obra hau egin zen garaiko testuinguru historiko-artistikoa.

A)





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

2013ko MAIATZA


ARTEAREN HISTORIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2013

HISTORIA DEL ARTE

B)



2. atala:

**PROPOSATZEN ZAIZKIZUN BI GAI HAUEN ARTETIK BAT GARATU
BEHAR DUZU: (5 puntu).**

A.- Eskultura gotikoa

- Alderdi nagusiak.

B.- Postinpresionismoa

- Ezaugarri nagusiak.
- Cézanne eta Van Gogh.



**ORIENTABIDE GISAKO EBAZPENA
(2013ko maiatza)**

1. atala:

A)

Panateneen frisoaren zatia, Atenasko Partenoikoa.

Fidias eta haren inguruko kideak.

K.a. 443-438

Arte grekoa, 1. aldi klasikoa

Marmolezko behe-erliebea.

Partenoiko Panateneen frisoaren zati txiki bat da. Partenoia tenplu greko nagusia da; Atenasko Akropolian dago.

Behe-erliebea marmol zurian egin dago K.a. 443 eta 438 bitartean. Benetako gertaera bat deskribatzen du, pertsonaia errealekin, eta pertsonen kokapena benetako prozesioan zutenaren antzekoa da.

B)

Jorge Oteizaren (1908-2003) obra bat da: Arantzazuko basilikaren fatxadaren dekorazioa (Oñati, Gipuzkoa). "Apostoluen frisoa" deritza. (1950-1954).

Obra apaingarri bat da, Oteizak basilikaren fatxadarako diseinatu. Egilearen ikusmoldearen arabera, bi talde daude: fatxadaren behealdeko frisoa 14 apostoluk okupatzen dute alderik alde; fatxadaren goialdean pietate bat dago, balkoi baten gainean paratua.

2. atala:

A.- Eskultura gotikoa

Eskultura gotikoa Mendebaldeko arteko aldi gotikoari dagokion eskultura-estiloa da; XII. mendearen bukaeratik XV. mendearen hasierara doa Mendebaldeko Europa kristauan. Estilo hori gutxi gorabehera hiru mendez egon zen indarrean. Erlijio-, politika- eta kultura-itzal handiko bi tokitan sortu zen: Saint Denis basilikan eta Chartresko katedralean, Île-de-France eskualdean.

Gotiko goiztiarra

XI. eta XII. mendeen artean motibo tematiko eta forma batzuk ezarri ziren, erlijio-doktrina transmititzeko egokienak jo zirenak.

Gotiko klasikoa

1200. urtearen inguruan, naturalismoak pizten zuen interes gero eta handiagoak aldatu egin zuen jatorrizko estiloa: gotikoaren bilakaeraren bigarren aldia da.



Gotiko berantiarra

Gotiko berantiarra estilo gotikoaren azken aldia da, baina ez zen izan gainbeheraldirik.

B.- Postinpresionismoa

Postinpresionismoa termino historiko-artistiko bat da, XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako inpresionismoaren osteko pintura-estiloak adierazteko erabiltzen dena. Roger Fry britainiar kritikariak asmatu zuen terminoa, Londresen 1910ean egindako Paul Cézanne, Paul Gauguin eta Vincent van Gogh-en pinturen erakusketa baten kariatz. Termino horrek, egiatan, zenbait estilo pertsonal biltzen ditu, eta inpresionismoaren hedapen gisa eta, aldi berean, inpresionismoaren mugen arbuio gisa aurkezten ditu.

Cézanne-ren eta Van Gogh-en obraren ezaugarriak kolorearen erabilera adierazgarria eta forma-askatasun handiagoa dira. Paul Cézanne-k, berriz, interesa zuen pinturaren tasun materialak nabarmentzeko: izaki biziak eta paisaiak irudikatu zituen, bolumenak eta gainazalen arteko erlazioak, hala nola Pinuak eta harkaitzak obran (1895-1898). Natura atzemateko orduan forma geometrikoetarako eta berezko argi prismaticorako zuen interesa kubismoaren esperimientuen aurrekaria izan zen.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

GALDERA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10
2	1, 2,3, 6, 7